



UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO UPV/EHU

Online Ikastaroen
proposamenak
aurkezteko araudia

online ikastaroak

Laguntzaile nagusiak

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Antolakuntza	4
3. Arautegia	5
4. Ohar orokorrak	7

1. Sarrera

UPV/EHUko Uda Ikastaroen Fundazioak online ikastaroko programa bat antolatzen du.

UPV/EHUko Uda Ikastaroen nahia da erreferentzia izatea udako ikastaroen artean, beren programan eta prestakuntza formuletan egiten dituzten etengabeko berrikuntzengatik, nazioartean duten proiektioagatik, eskaintzen duten balio erantsiagatik, beren aliantza sarearen hedapen eta sendotasunagatik, Euskal Herriarekin duten konpromisoagatik eta beren antolakuntza kalitateagatik.

Uda Ikastaroen egitekoa hauxe da:

- ➔ Jakintza zabaltzea eta hedatzea, UPV/EHUk sortutakoa bereziki, Euskal Herritik eta nazioarteari begira.
- ➔ Ezagutza profesionalak eguneratzea, arreta berezia jarritz maila guztietako irakasleen prestakuntzan.
- ➔ Unibertsitateen arteko harremana sendotzea.
- ➔ Ekarpena egitea euskal kultura eta ikasketen irakaskuntza eta zabalkundeari, nazioarteari begira.
- ➔ Leku bat eskaintzea eztabaidari eta pentsamendu kritikoari, etengabe aldatzen ari den gizarte batean, gizarte ongizatea hobetzeko, euskal gizartearena bereziki.

Uda Ikastaroen egiteko osagarri bat da UPV/EHUren irudi positiboa transmititzea, baita erakunde laguntzaile eta babesleena ere.

Egiteko horri begira, Uda Ikastaroak zabalik daude Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakundeekiko lankidetzara.

Jakintza zientifikoaren alor guztietara iritsi nahi dugu, euskararen presentzia indartu, eta urratsak egin nahi ditugu parte hartzean oinarrituko diren ikaskuntza metodologietan. Hori guztia ekonomikoki iraunkorrak izanik.

Online ikastaroetako programazioa

- ➔ **aurreko Edizioko udako ikastaro presentzialak onlineko metodologiarako egokituaz eta**
- ➔ **online inplementaziorako diseinatutako ikastaroz osaturik dago.**

Udako Ikastaro presentzialak ez bezala urtean zehar online ikastaroetako proposamenak aurkeztu daitezke, hortaz era jarraituan ikastaroak inplementatzen joango dira.

2. Antolakuntza

Jarraian online ikastaroen antolaketarako gutxi gora beherako egutegia aurkezten da.

Proposamena jaso ondoren onarpenaren berri emango da ikastaroaren datak adostuko dira. Jarraian:

→ Programa indibidualaren prestaketa.
→ Difusioa egiteko materialaren prestaketa.
→ Eskaintzaren difusioa.
→ Matrikulazioa.
→ Plataformaren prestaketa eta edukiak.
→ Online Ikastaroaren hasiera.
→ Ikasleen kalifikazio aktaren bidalketa.
→ Ikasleentzako ziurtagiriaren bidalketa.
→ Irakasleentzako ziurtagiriaren bidalketa.
→ Iritzi-txostenetatik egindako estatistika orokorrak.
→ Irakasleen ordainketak.

3. Arautegia

Aurkezteko modua

Proposamenak Uda Ikastaroen web gunean aurki daitekeen formularioa betez aurkeztuko dira. (<https://www.uik.eus/eu/proposamenak/online-ikastaroen-proposamenak>)

Ondorengo taulan online ikastaroen ezaugarri orokorrak zehazten dira:

	e-Ikastaroa
Helburuak	Online eragin hezigarriak etengabeko prestakuntzaren beharrekin, espezializazioko zein dibulgazioko, bat etorriko dira zorrotasun akademiko eta zientifikoko irizpideekin.
Bakoitzaren irakaskuntzaren karga	Bakoitzaren irakaskuntzaren karga ordu-kopuruaren arabera 1-3 ETCS (Accumulation System European Credit Transfer) kreditutakoa izan daiteke. ECTS European credit transfer system-eko ('kreditu-transferentziako sistema europarra') sigla da. ECTS ikaslearen jardueran zentratzen da eta beharrezko lan-kargan oinarritzen da programa baten helburuen lorpenerako ECTS-a kreditua baliokide da 25-30 orduara (eskola-orduei, ikasteko-orduei, tutoretzei, mintegiei, lanei, praktikei edo proiektuei eskainitako denbora, azterketak eta ebaluazioak preparatzeko denbora barne).
Iraupena	Hilabete bateko ikastarorako erreferentzia bezala: <ul style="list-style-type: none"> ➔ 4 astetan zehar 30 ordu (astero 7-8 ordu). ➔ Gehi aste bat ikastaroaren ebaluazioa eta itxiera egiteko. Ikastaro bakoitzaren iraupena balioetsiko da.
Ikasleen kopurua	Gutxienez 25 ikasle.
Irakasleen kopurua	Irakaskuntzaren taldea gutxienez zuzendari eta tutore batek (bera izan daitekeenak) osatuta egongo da. Aurrez ikusi ahal izango da kolaboratzailetako eta beste irakasle batzuetako, parte hartzea kontutan hartuz hauen ikastaroaren berezko baliabideekin estali behar izango direla.
Matrikulazioa	Orientazio bezala 30 orduko ikastarorako prezioa 80 eurokoa da.
Ordainketa	Irakasle taldearen ordainketa 25 ikasleko minimoko 1200 euro basatitakoa izango da 30 ordu birtualgatik eta irakasle guztien artean banatzera. Irakaskuntzaren taldeaz gain beste kolaboratzaile batzuen aldetik materialen prestaketa behar izatearen kasuan 15 ordu birtual bakoitzeko 200 euro ukango dira.

Irakaskuntza taldeko arautegia

Zuzendariaren eta irakaskuntza taldearen erantzunkizunak:

- Ikastaroko programa diseinatzea.
- Ezarritako egutegiko epeak betez eskatutako dokumentazioa ematea.
- Hasieratik bukaera arte ikastaroaren jarraipena egitea eta plataforma edukiaz dohatzea.
- Ikasleei aholkatzea, haien parte hartzea dinamizatzea, jarraipena egitea, beraien zantzak erantzutea eta bere ikasketa orientatzea (ikasleei foroen bitartez erantzutea, posta elektronikoak...).
- Ikasgela birtualaren txantiloitik aterata (ikastaro presentzialaren bideoak barne) plataforma edukiaz dohatzea: irakaskuntzaren gidaliburua, ikaslearentzako egutegi akademikoa, heziketa-pilula zehatzak, gehigarriko materiala sartzea, ikasleak garatzeko jarduerak, osatzeko galdeketak, foroen identifikazioa (blokez /gaiaz/orokorrak)..
- Prestatutako plataforma webearen bidez ikasleak ebaluatzea.

Uda Ikastaroetako Zuzendaritzak online ikastaro bat ez egitea erabaki ahal izango du, araudiko baldintzak betetzen ez direlako edo matrikularen gutxienezko kopurura ailegatzen ez delako.

Uda ikastaroak irakasle taldearen eskura plataforma jarriko du eta ikastaroan zehar babesa emango du: materialaren prestaketa, ikastaroaren eta ebaluazioaren jarraipena.

4. Ohar orokorrak

Uda Ikastaroen Zuzendaritza Taldeak **bertan behera utzi** ahal izango du jarduera bat:

- araudia ez bada betetzen,
- matrikula kopurua gutxienekora iristen ez bada
- defizit ekonomiko bat sortzen bada.

Datu Pertsonalak Babesteko Legea:

Datu pertsonalak, irudiak eta ahotsa barne, fitxategi berezietan gordeko dira, UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAren ardurapean. Datuak gordetzearen helburua da eskaintzen diren ikastaro guztiak artxibatzea, irakaskuntza edo ikerkuntza lanetan erabiltzeko etorkizunean. Fitxategietan gordetako datu pertsonalak ez dira hirugarrenen esku utziko, legeak ezarritako kasuetan edo ikastaroaren helburua betetzeko beharrezkoa denean izan ezik. Nahiz izanez gero, sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurkatzeko eskubideak erabil daitezke datu pertsonalei dagokienez, idatzi bat bidalita Fundazioaren egoitzara, NANren kopiarekin.

Jabetza intelektual:

HIZLARIAK hitz ematen du hitzaldian erabiliko duen materialaren jabetza intelektualaren gaineko eskubideen titularra dela, eta jabetza hori karga orotatik libre dagoela. HIZLARIAK baimena ematen dio UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAri edukiak zabaldu eta argitaratzeko.

Irudiaren eta ahotsaren lagapena:

HIZLARIAK / ZUZENDARIAK baimena ematen dio UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAri bere ikastaroa edozein ikus-entzunezko euskarritan jasotzeko, haren erreproduzio, banaketa edo komunikazio publikorako; zehazki, jardueran zehar hartutako bere irudia eta ahotsa jasotzeko. Doan ematen den baimen honen barnean, jasotako materialak izan ditzakeen ikerketa edo irakaskuntza erabilera guztiak barne hartzen dira, edozein bitarteko edo euskarri erabilita, hedabideak edo sare sozialak barne. Baimen honek irakaskuntza edo ikerketa erabilera izango du, eta ez du inolako denbora mugarik izango emakidari edo ustiapenari dagokionez. Era berean, hemen emandako baimena ez da mugatzen eremu geografiko zehatz batera.

Uda Ikastaroetan parte hartzeak esan nahi du Araudia onartzen dela.